



Andikonako Andra Maria Santutegia (Berriz)

Duen kokapen altuaren gainean, Andikona Santutegia kofradia txiki bat bezala agertzen da, baserrietako nekazal eliztarrak zeintzuk aintzinatik tenploaren inguruan bildu baitira; hau da, Andra Mariari buruzko herri-eremuko santutegi txikia. Kokapenaren edertsuna, Oiz mendiaren magalean, eta eraikinaren lilura santutegia bisitatzeko arrazoietariko batzuk dira.

Eraikina

Eliz gotikoa da eta hiru ataletan banatuta dago. Burualdean sakristia bat dago eta eguerdi-hegalean arkupe bat. Ez dauka dorrerik kanpai-horma baizik –nekazal-temploetan gertatzen den bezala-. Horma hori ez dago oinetan jarrita eguerdi-hegalean baizik.

Estilo gotikokoa, oso proportzionatua eta bere hormak urre koloreko silarriz apaintzen ditu eta zulatzen dira argia barrura sartu ahal izateko eta sarbidea egiteko. Sarbidea eta leihoak estilo berekoak dira; sarbidea zorrotza da eta leihoak batzuetan zorrotzak eta bestetan borobilak, diseinu desberdinetako trazeria duten hainbat argizulo ere badaude.

Hiru atalak gangatzen dira; lehenengoa pixka bat estuagoa da eta nerbio gurutzatu biko gurutzeria dauka; beste biek lau puntadun izarrak, nerbio zuzenez eta bost giltzarri (terzeletako ganga) egindako diseinua dute. Normalean nerbioak mentsuletan edo hormeei erantsitako apaletan zurkaizten dira. Horma horiek, giltzarriak bezala, gotiko erara apaintzen dira; hau da, zizelatutako istorioez.

Oinetan kuru altua dago, Berrizko San Juan Ebanjelariaren kopia bat, akaberak xumeagoak baina oso egokiak. Zutabe gaineko bi arkuetan kokatuta dago eta zutabe txikiak karela du. Arkuen bazterzokoetako bi dominek koria 1598koa dela erakusten dute.

Eraikina lan ezezaguna da, eta 1520 urte ingurukoa dela nahiko ziur esan daiteke. Estilo gotikokoa da, XVI. mende hasierako hirietako eta herrietako ohiko euskal gotikokoa da. Hala ere, kultura antzinatik egon behar zuen bertan, inguruko estela epigrafiko batek ematen duen informazioagatik. Estela hori XI. mendekoa izan liteke. Izan ere, antzinako garai horretako aztarnarik ez dago Andikonan.

Kanpai-horma, hainbat gorabeheren ostean, 1789koa da eta Elorrioko Gabriel de Capelastegui maisuak egin zuen. Sakristia lehenagokoa da, 1774koa, eta Domingo de Abaituak errematatu zuen 1.685 errearen truke.

Gaur egun elizak duen itxura garbia 1949 urtean egindako eraberritzeari esker da; data horretan dagoeneko, Andikona Santutegia guztien ondarearen bitxi txikitat hartzen zuten.

Altzariak

Burualdean sartuta dagoen erretaula nabarmentzen da, zur polikromatuzkoa da. Estilo barrokoa du, "churrigueresco" aldikoa, eta detaile batzuek rococo estiloa erakusten dute. Bere etxe nagusian, Bizkaian ohikoa den Andra Mariaren taila txiki bat dago titular gisa; taila XIV. mendearen lehenengo hasierakoa da. Agiri batzuek erretaula (1735) menditar Agustín de Quintanari eta Domingo de Soanori erretaula-egileei egotzen diete. Beste alde batetik, Luis de Foncuevak urreztatu zuen, 1763an.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Andikonako Andra Maria Santutegia

Berriz. (Andikona auzoan).

Nola iritsi:

Berrizetik Markinarantzako bidea hartuko dugu eta San Lorenzo basiliza eskumatik pasatuta, ezkerrean dagoen sahiesbidea eta "Andiko Auzoa" seinatzen diguna hartuko dugu.

Hurbileko beste leku interesgarri batzuk:

(Berriz)

- San Juan Ebanjelaria eliza.
- Abadetxea.
- Berrizbeitia eta Isuntze

